

FRAI BARTOLOMEREN LIBURUETAKO EUSKARA

Bartolome Madariaga edo Fr. Baratolome Santa Teresa (1768-1835) karmeldarraren 1807ko eskuizkribu baten barri emon neban *Bizkaierazko Idazle Klasikoak* liburuan (Bizkaiko Foru Aldundia, 1992, 276-278). Eskuizkribu hau *Icasiquizunac*-en lehenengo zatiaren aurreko idaztaldi edo idazketa bat da, argitaratzeko prest itxia. Izenburuko orria, eskaintza, hitzaurrea eta topaleku edo aurkibidea egilearen beraren eskukoak ditu, baina gainerako guztia beste batek kopiatua da.

1807ko idaztaldi honen ondoren beste eskualdiren bat emon eikion egileak. Kontua da 1816an argitara ebanean testua nahikoa aldatuta agertu zala. Izenburuak aurrez-aurre jarri daiguzan:

Jangoicuaren legueco lelengo bost Aguinduben ogueta bost Lecinoe, ta sermoe bat. Aita pray Bartolome Sta Teresa Marquinaco Carmen oinustuco predicadoriac etaraac. Mandamentuben I. Partia. 1807 urtian.

Jaungoicoaren Amar Aguindubeetaco lelengo bosteen Icasiquizunac, Aita Prai Bartolome Santa Teresac Marquinaco Carmen Ortozeco Predicadoriac ateraac. I. Zatiija. Biar dan ondo izatiagaz. Iruñean: Rada Alargunaren Liburuguillaan, 1816 urtean.